



«eTwinning ikastetxeak» eTwinning komunitateko liderrak dira. Beren **zuzendaritza, koordinazio eta dozentzia organoek** eTwinning-en garrantzia eta balioak aitortzen dituzte, baita **ikastetxeko ildoetan, irakaskuntza jardunbideetan eta garapen profesionaleko bideetan** txertatu ere.

eTwinning ikastetxeetan, irakasleek **indarrak batzen dituzte** heziketa esperientzia zabalago eta aberatsago bat lortzeko.

eTwinning ikastetxeak **eredu** dira: beste ikastetxe batzuk inspiratu eta gidatzen dituzte haiek bezainbeste egin dezaten aurrera. Era horretan, irakaskuntza hobetzeko grinari eusten diote hezten dituzten gazteak aberastu eta **pertsona hobeak, ikasle hobeak eta hiritar hobeak eta parte hartzaileagoak** izan daitezten.

eTwinning ikastetxeak lidergo partekatuaren eredu batekin konprometitu daude

eTwinning ikastetxeetako koordinazioa partekatzen da, bai antolakuntzaren erantzukizunean, bai erabakitze prozesuetan. Euren zuzendaritzak eta ikasketa burutzak eTwinning-ek arlo pedagogikoan eta profesionalean eskaintzen dituen aukerak ulertzen dituzte, eta langileak era aktiboan animatzen dituzte eTwinning jardueretan parte hartzera.

eTwinning ikastetxeek konpromiso irmoa dute kooperazioarekin, hartu-emanarekin eta talde lanarekin.

Dozenteeek aldi berean lan egiten dute jarduera didaktikoak eta eTwinning jarduerak planifikatzen, eta esperientziak eta jardunbideak partekatzen dituzte, ikastetxe barruan zein kanpoan. Bat egiten dute eTwinning ekintza plan bat izateko ikastetxean eta haratago berrikuntza eta hobekuntza indartzeko helburuarekin.

eTwinning ikastetxeko ikasleak aldaketa eragile dira

eTwinning ikastetxeak bertako ikasleei esker ere garatzen da. Haien parte hartzeak irakasleek (jada inplikaturik ala ez) eTwinning erabiltzea sustatzen du, bai eta familiekin ere, sustatuz eta ikastetxeko berrikuntza didaktiko eta teknologikoak garatuz.

eTwinning ikastetxeak beste ikastetxe batzuentzat eredu dira

eTwinning ikastetxeek beren eremuko beste ikastetxe batzuen enbaxada gisa jarduten dute, eTwinning era aktiboan sustatzen eta haien lorpenak eskura dituzten baliabide guztiekin jakitera emanez, besteak beste, ate irekien jardunaldiak, liburuxkak edo aholkularitza programak. Jarrera proaktiboa dute beren eremuko beste ikastetxe batzuentzat irekita dauden garapen profesionaleko abaguneak sortzeko.

eTwinning ikastetxeak hezkuntza erakunde inklusibo eta berritzaileak

Arlo guztietan inklusioarekin duen konpromisoa dutenez gero, etengabeko ahalegina egiten dute haien espazioa mota guztietako gaitasun eta kulturakoak diren ikasleentzat, euren familientzat eta euren ingurune sozialarentzat inklusiboa izan dadin. Bertako irakasleak ikastetxearekin konprometitu daude hezkuntza erakunde integrala den aldetik. eTwinning baliatzen dute laguntza emateko eta curriculumarekin eredu pedagogiko berritzaileekin eta askotariko ikuspegiekin emateko. Horien artean daude ikaskuntza kooperatiboa, ikaslea erdigunean jartzen duen heziketa eta ordutegiaren zein ikaskuntza-espazioen malgutasuna.



Funded by
the European Union